

# KANALAK

Bezerearekin komunikazio eraginkorra izatea funtsezkoa da proiektuaren helburuak lortzeko. Alderdi askok eragiten dute enpresa batek bere bezereekin duen harremanean, hala nola produktuaren edo zerbitzuaren kalitatea, emandako arreta, erantzun azkarra, adibide batzuk jartzearen. Publikoarekin, gure kasuan ikasleekin, komunikazio eraginkorra izatea funtsezkoa da harreman hori eraginkorra izan dadin, eta, hala, emaitza hobekiak lor ditzagun gure ekimenerako. Pertsonekin komunikatzeko moduetan inbertitzeak lagundu egingo luke gure proiektua positiboago hautematen eta, beraz, merkatuan gehiago baloratu dadin. Hau da, ondo komunikatzea erabakigarria da bai proiektuan aritzeko ikasle eta irakasle bolondresak lortzeko eta baita saskien salmentak egiterako orduan erosleak lortzeko. Ekimenaren helburuak argi komunikatu behar ditugu ikastetxeko talde guztiei: bai ikasle, irakasle, langile zein gurasoei. Baita ere bereingain sortu daitezkeen edozein zalantza edo iradiokizun jasotzeko bideak diseinatu behar ditugu.

Hauek dira helburu hori lortzeko gure proposamenak:

Lehenik eta behin, institutuan eta inguruetan publizitate-kartelak diseinatu eta itsatsiko ditugu. Gure kartela erraz ikus daitezke, hitz gutxirekin, baina ulertzeko modukoa. Horrela, ikuslearen arreta bereganatuko luke, mezua jasotzera behartuz, eta bere funtzioa beteko luke; mezu bat igortzea, argia eta informazioa zabalduko zuena. Kartel horietan, boluntario berriak eta bezereak erakartzeko gure proiektuaren berri emateaz gain, interesa duten pertsonak proiektuan nola parte hartu ahal duen azalduta etorriko da. Talde sustatzailearekin harremanetan jartzeko informazioa jarriko genuke. Ezaugarri hauek izango zituzten gure kartelek:



- Atentzioa dei dezala.
- Simplea eta ulerterraza.
- Mezua ahalik eta elementu gutxienekin adieraziko zuen.
- Zenbait metrotatik ikusiko zen.
- Sortzailea.

Interes taldeekin lehenengo harremana lortu ondoren, interesdunekin bilera bat aurrez aurre antolatuko daproiektuaren hainbat gai argitzeko. Ikastetxean gune bat prestatuko genuke horretarako. Gune hau biologiako laborategian prestatuko litzateke, bertan gauzatzen baitira Agenda 30ekin zerikusia duten proiektuak. Bertan

ekimenaren informazio zabalagoa luzatuko dugu eta bolondres taldeak sortzeko hasierako pausuak emango dira, beharreko informazioa komunikatuko da eta elkartrukea lortuko da. Hala, edoizen momentutan bai proiektuko partehartzaile edo interesa izan dezakeen edozein pertsona gurekin komunikatzeko bi bide izango ditu nagusiki: pertsonalki ortura gerturatuz edo proiekturako sortuko den helbide elektronikora idatziz [ekortu@barandiaran.biz](mailto:ekortu@barandiaran.biz)

### ***Produktuen banaketa:***

Institutuaren barruko salmentei begira, jolas-orduan produktu fresko eta ekologikoekin saltoki txiki bat jartzea litzateke gure asmoa. Institutuko kide guztiek merkatuko prezioa baino merkeago eskuratu ahal izango dute gure salmenta-zerbitzua, gure helburua ekonomikoa baino sozialagoa baita. Prezio baxuak eskaintzean, bezero gehiago erakarriko genituzke eta elikadura osasungarriagoa sustatuko genuke.



Bestalde, institututik kanpoko pertsonak (Kurtze Bekoa taberna eta/edo Leioako ostalaritza eskola) eskaera pertsonalizatuen bidez eros ditzakete gure produktuak. Eskaera horiek posta elektronikoko bidez edo sare sozialen bidez egin daitezke; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, harremanetarako informazioa publizitate-karteletan eta sare sozialetan agertuko da. Eskaera egin ondoren, guk geuk eramango genituzke eskatutako produktuen kaxak.